

Kaian egindako festarekin giro ederrean bukatu da Olatu Talka

Hiria eta itsasoa elkartu dituen jaiarekin amaitu da aurtengo Olatu Talka. Donostiako Kaian izan da jaiak eta goiz goizetik ekintzaz bete da, giro ederrean.

Goiztiarrenak **Orixe Ikastolako guraso eta ikasleak** izan dira, Gaztelubide kaleko pareta bat atontzen hasi baitira 10:00ak aldera. Ustez pareta horretan bertan Banksy egindako grafiti bati keinu eginez, markoak margotu dituzte paretetan eta haien barruan bakoitzaren sormenari bide eman diote, **Marko paregabea** izenburupean. Eskolarako bidea txukundu eta aldarrikatu nahi izan dute era horretan.

Ambar elkarteak antolatutako lehenengo **itsas-bidaia didaktikoa** ere goiz abiatu da badiara, eta bertaratutakoek gogotik gozatu dute Kantauri itsasoko faunaren inguruan elkarteko kideek emandako azalpenekin. Badian barrena bi bidaia egin dituzte eta **180 lagun** ibili dira bertan.

Musika eta dantzaren txanda **Izarrak Plazara** ekimenak hasi du Kaian. 11:00etatik aurrera, **12-17 urte bitarteko 8 taldek emanaldia** eskaini dute, adituekin prestatzen aritu ostean, eta emanaldiak interesa piztu du ikus-entzuleen artean. Donostiako Orfeoiko Orfeoi Txikiak eta Orfeo Català-ko Haur abesbatzak oso emanaldi polita eskaini dute. **Harp & Co** harpa eta dantza emanaldia ere oso **berezia** izan da eta, ondoren, **Akordeoi topaketa** etorri da, oholtza bete akordeoi.

Arratsaldean, **bestelako estilotako kontzertuen** txanda izan da. **Orchidayren** musika esperimentalak eta **Gorpuzkingzen** basque trap apurtzailea Kaian ikustea berezia izan da oso. Eguna amaitzeko, **Sur Le Feel** taldearen jazz doinuak eta **Adam Giles Levieren** indiea.

Itsasoa eta hiria lotzeko ezin ahaztu **Gente de Mar** dokumentalaren emanaldiak Untzi Musoan eta +55 programako **narratzaileek** itsasoari buruz kontatutako istorioak.

Emanaldi horiez gain, artearekin lotutako ekimenak aipatu behar. **Jon Jauregiren Banaiz** erakusketak eta **Elena Scarattiren Human Web Art** instalazio artistikoak (azken hori ostegunetik izan da lanean UBAko hainbat gazterekin batera) jendearen arreta bereganatzea lortu dute. Azkenik, Bitamine Faktoriaren Transbita gunean egindako **Sekretu ozenak** esku-hartze parte-hartzailea izan da, jendearen sekretuak haizatzeko ekimena.

Kaitik kanpo ere musika eta dantza emanaldi batzuk izan dira. **Zurriola Dantza Eskolak** Udaletxeko Terrazan **emanaldi** jendetsua egin du eta Boulevardean **Leire Hathor** dantza akademiak eta **Son pa Bailar** taldeek ere dantza ikuskizuna eskaini dute. Arratsaldean, berriz, **Cervantes plazan** izan dira dantza emanaldiak. Miramongo anfiteatroan **Anitz Musika Elkarteak Eresoinka Euskal Doinuak** eskaini du.

Lehenengo balorazioa

Gaurko ekitaldiez gaian. Olatu Talka jaialdiaren inguruko **lehen balorazioa** egiteko unea da, eta hemen doaz datu esanguratsu batzuk.

Parte hartzeari dagokionez, ostiralean 5.500 bat lagun egon ziren **inaugurazioan, Kontxa Gaumarketan, Urbanzientzian** eta hainbat gunetan antolatutako **kontzertuetan**.

Larunbateko lehen zenbaketaren arabera, **20.000 lagunek baino gehiagok** parte hartu zuten Olatu Talkaren jardueraren batean edo bestean.

Igandeko ekitaldiak amaitu gabe, jada **6.000 lagun** izan dira Kaiko ekimenetan.

Hala ere, datuetatik haratago ekitaldi zehatz batzuek izan duten arrakasta azpimarratu beharra dago.

Urbanizientzia: Ostiralean eta batez ere larunbatean **Katalunia Plazan** jende ugari ibili zen **Teknahik** antolatutako ekimenean, eta jendeak gogotik gozatu zuen bertan egindako **esperimentuekin, tailerrekin eta hitzaldiekin**.

Mundu Festen Topaketa: Jendetza elkartu zen **Teresa de Calcuta Plazan**, eta oso ekimen interesgarria izan zen **kultur arteko elkar ezagutza** eta lankidetzaren bultzatzeko.

Gipuzkoa Solidarioaren eta Caritasen guneak: Gizarte arloan lan egiten duten bi elkarte hauen guneetara ere jendetza hurbildu zen, eta bi ekimen azpimarratzeko modukoak izan ziren: **gurpil gaineko ginkana** eta **zapiak** era ezberdinetan **jartzen ikasteko tailerra**, herritarren aldetik oso harrera ona izan baitzuten.

Kontxa Gaumarket: Ostiralean **jende asko** hurbildu zen Kontxa Gaumarketera, baina **larunbatean are gehiago**. Une batzuetan bertako postuak ikustea ere zaila izan zen, eta 7.000 lagun baino gehiago pasatu ziren bertatik.

Udaletxea kasino bihurtzeko ekimena: Donostia Lindy Hop Dantza Elkarteak gaur egungo **udalbatza aretoa berriro kasino** bihurtu zuen, garai batean izan zenaren **130. urteurrenean**. Udabaltza aretoa lepo bete zen, baimendutako edukiera betez, eta ikus-entzule batzuek kanpoan geratu behar izan zuten.

Tailerak: Hiriko hainbat bazterretan izandako **ikastaro eta tailerren** arrakasta ere aipatu behar da. **Leku guztiak bete baitziren** bai **Konstituzio Plazako 18 tailerretan**, bai **Cristina Eneko** lau tailerretan eta abar. Tailerren artean, sortu zuen ikusminagatik eta ikusgarritasunagatik, Antiguako Zubimusu parkean **Lotzen ADDek** antolatutakoa aipatu behar da, **80 lagun aritu baitziren parkourraren sekretuak ikasten**.

Kontzertuak: Kontzertuen artean inolako zalantzarik gabe berriro **Basoka** aipatu behar, jendea elkartu baizen **Miramongo paraje berezian** musikaz gozatzera. **Eustasio Amilibiako kontzertuetan 200 lagun** inguru elkartu ziren, eta **larunbateko kontzertu arrakastatsuenak Kaian** izan ziren, **Nothing Box** eta **Pelayo y Sus Malditos** nabarmenduz.